

## "Sagardoaren lurraldea ezagutzuz" ibilaldia

2016/04/19

**Astigarraga eta Hernani herriak zeharkatuko ditu apirilaren 24ean, Sagardoaren Lurraldeak, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udalek antolatuta.**

Ibilaldia goizeko 10:00etan **Sagardoetxean** hasiko da (Astigarraga) eta Hernaniko Biteri Kultur Etxean amaituko da "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketarekin. Ibilaldian zehar interesgune ezberdinetan azalpenak eskainiko dira Urumea ibaiak gordetzen dituen sekretuak ezagutzera emateko.

Ibilbidea honakoa izango da:

- Elkargunea Sagardoetxea Sagardoaren Museoan (Astigarraga).
- Geldialdia Astigarragako Murgia Markesaren Jauregian. Bertan, Lourdes Odriozola Sagardoetxeako historilariak azalpenak eskainiko ditu.
- Geldialdia Ergobiko zubian. Bertan, Lourdes Odriozola Sagardoetxeako historilariak azalpenak emango ditu.
- Igarobidea Martindegi-tik (Oialume).
- Geldialdia Epele-Ereñotzu-n (Lastaola Poligonoa). Bertan, Jexux Mari Gomez Hernaniko Udaleko Artxiboko arduradunak azalpenak emango ditu.
- Igarobidea Osiñaga-tik.
- Geldialdia Portu auzoan. Bertan, Jexux Mari Gomez Hernaniko Udaleko Artxiboko arduradunak azalpenak emango ditu.
- Hernanira iritsiera eta "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketaren bisita gidatua Biteri Kultur Etxean.
- Jardunaldiaren amaiera Hernaniko Akarregi sagardotegian ohiko menua dastatuz (hautazkoa).

Ibilaldiaren iraupena 2 ordu eta 30 minututakoa da gutxi gora-behera eta ibilaldia erraza da, malda bakarra Oialume eta Lastaola Poligonoaren artean dago.

Ibilaldian parte hartzea doakoa da eta Akarregi sagardotegiko bazkariaren prezioa pertsonako 24€-koa da.

Izen-emateak: 943550575 / info@sagardoarenlurraldea.com




Garbiketa lanak egiten Urumea ibaian

CASERÍO MUSEO IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA Ezkio bidea z/g 20709 EZKIO-ITSASO. (Gipuzkoa) Tel.: +34 943 722 978 Fax.: +34 943 880 138

[OHAR LEGALA](#) [WEB MAPA](#) [KONTAKTUA](#)  
[IRISGARRITASUNA](#)



GipuzkoaKultura 

GM Gipuzkoako  
Museoak

GEROZTIK  
Historia Museo Birtuala

Z·M MUSEO  
ZUMALAKARREGI  
MUSEOA

Web gune honek cookie-ak erabiltzen ditu nabigazio esperientzia hobetzeko eta gure zerbitzuak eskaintzeko. Nabigatzen jarraitzen baduzu, ulertuko dugu horien erabilera onartzen duzula. Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu gure [Cookie Politika](#). [Cookieak onartu](#)